

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 53/2021 Erabakia, otsailaren 9koa. Onestea Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen 2021eko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen modalitateko laguntzak arautzeko oinarriak onetsi ziren. Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 12ko 12/2018 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori.

32/2017 Foru Dekretuan ezarri ziren Arabako Lurralde Historikoko zein zona eta azpizonatan jardungo den aldi berean, bai eta Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen deialdi bakoitzean jarraitu beharreko ordena ere.

Jarduketa plana hiru zonetako 6 azpizonan hasi zen 2017ko deialdian, eta 2018., 2019. eta 2020. urteetako deialdietan hiru zonetako 1, 2 eta 3 azpizonak egin ziren, hurrenez hurren; beraz, 2021ean, ezarritako ordenari jarraikiz, hiru zonetako 4. azpizonetan jardun behar da.

1 zona, 4 azpizona: Guardiako Udaleko eta Lapuebla de Labarcako Udaleko erakundeak.

2 zona, 4 azpizona: Asparreneko Udaleko, Donemiliagako Udaleko eta Zalduondoko Udaleko erakundeak.

3 zona, 4 azpizona: Gaubeako Udaleko eta Añanako Udaleko erakundeak.

7. artikulua araberan, urtero onetsiko da kasuan kasuko laguntza deialdia, eta bertan, jardun azpizonez gain, hauek ere sartuko dira: eskaerak aurkezteko epea eta lekua, dirulaguntzak esleituta duen aurrekontu kreditua eta, hala behar izanez gero, espedienteak sailkatzeko irizpide objektiboak, eskaerak aurkezteko inprimaki normalizatua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta dirulaguntzaren gutxienerako edo gehienezko zenbateko baliokidea.

Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuan bada kreditua gauzazko laguntza horietarako; hain zuzen ere, 40.1.01.46.01.650.00.03 "Landa bideak kontserbatzeko obrak" partidaren. Hortaz, onetsi beharra dago horien deialdia eta finkatu urte horretako jardun eremu geografikoa.

Ikusirik aginduzko txostenak, haien ondorioz, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea dirulaguntza horien 2021erako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

– Jarduketa eremu geografikoa: deialdi honetako hiru zonetako 4 azpizonak erabaki honen 1. eranskinean agertzen dira.

– Eskaerak aurkezteko epea eta lekua: 15 egun baliadun, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

– Dirulaguntzari esleitu zaion aurrekontu kreditua: 450.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021erako gastu aurrekontuko 40.1.01.46.01.650.00.03 "Landa bideak kontserbatzeko obrak" partidaren kontura.

– Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa: erakunde bakoitzari, dagozkion eta Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan sartuta dauden bideen luzeraren arabera, honako gehieneko dirulaguntza hau dagokio:

BIDEEN LUZERA, ERAKUNDEEKO (KILOMETROAK) (KM)	GEHIENEKO ZENBATEKOA, ERAKUNDEKO (EURO)
0-25 km	20.000,00
25 baino gehiago-50	40.000,00
50 baino gehiago-75	60.000,00
75 baino gehiago-100	80.000,00
100 baino gehiago-125	90.000,00
125etik gora	100.000,00

– Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak: deialdi honetan, oinarri arautzaileen 6. artikuluan jasotakoak dira.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea deialdiaren ebazpenaren aurka jartzen diren errekurtsio guztiak ebazteko.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE



I. ERANSKINA

2021EKO DEIALDIKO JARDUKETA AZPIZONAK

1 ZONA – 4 AZPIZONA		
UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (km)
GUARDIA	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	135,30
GUARDIAKO UDALA		129,50
PAGANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,80

LAPUEBLA DE LABARCA	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	16,22
LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA		16,22

2 ZONA – 4 AZPIZONA		
UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (km)
ASPARRENA	ARABAKO LAUTADA	62,5
ASPARRENEKO UDALA		16,06
ALBEIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,83
AMETZAGA ASPARRENEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,3
ANDONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,8
ARRIOLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,61
EGINOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,01
GORDOAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		11,32
IBARGURENGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,08
ILARDUIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,42
URBAINGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,07

DONEMILIAGA	ARABAKO LAUTADA	113,48
ADANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,94
AXPURUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,12
EGILATZEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,39
GALARRETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,83
LUZURIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,85
MEZKIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,42
MUNAINGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,84
NARBAXAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		17,92
OKARIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,39
ERDOÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,57



DURRUMA DONEMILIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,06
TXINTXETRUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,36
URIBARRI JAUREGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,6
BIKUÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,18
ZUHATZU DONEMILIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,01

ZALDUONDO	ARABAKO LAUTADA	17,61
ZALDUONDOKO UDALA		17,61

3 ZONA – 4 AZPIZONA

UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (km)
GAUBEA	AÑANA	178,28
GAUBEAKO UDALA		1,62
ACEBEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,55
BACHICABOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		14,63
BARRIOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,78
BASABEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,99
BOVEDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		11,73
CARANCA ETA MIOMAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,22
CORROKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,85
ESPEJOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		15,56
FRESNEDEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,37
GINEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,8
GURENDES-QUEJOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,11
KARKAMUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5
NOGRAROKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,23
OSMAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,77
PINEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,72
QUINTANILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,18
TOBILLASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,16
TUESTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,01
VALDEREJOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,9
VALLUERCAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,38
VILLAMADERNEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,07
VILLANAÑEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,64
URIBARRI GAUBEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,01

AÑANA	AÑANA	31,63
AÑANAKO UDALA		21,93
ATIEGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,7